

t x o s t e n a
2023
m e m o r i a



elkar-lan
S . C O O P .

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

aurkibideaíndice

I. ORGANO SOZIALAK	I. ÓRGANOS SOCIALES	5
II. LEHENDAKARIAREN AGURRA	II. SALUDO DEL PRESIDENTE	9
III. INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA	III. INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN	13
IV. PRESTAKUNTZA	IV. FORMACIÓN	33
V. AHOLKULARITZA ETA KOOPERATIBEN ERAKETA	V. ASESORAMIENTO Y CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS	37
VI. TUTORETZA JARRAIPENA	VI. TUTORIZACIÓN SEGUIMIENTO	41
VII. 2023AN ELKAR-LAN, S. COOP. SOZietateari LOTU ZAIZKION KOOPERATIBA BERRIEN ZERRENDA	VII. RELACIÓN DE NUEVAS COOPERATIVAS VINCULADAS A ELKAR-LAN, S. COOP. EN 2023	43
VIII. ELKAR-LAN, S. COOP. SOZietateari DIRUZ LAGUNDU DIOTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA	VIII. RELACIÓN DE COOPERATIVAS QUE HAN COLABORADO ECONÓMICAMENTE CON ELKAR-LAN, S. COOP.	97



ORGANO SOZIALAK
ÓRGANOS SOCIALES

BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL



EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA (EKGK-CSCE)
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (CSCCE)



KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Confederación de Cooperativas de Euskadi

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)
CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (CCE)

KONTSEILU ERREKTOREA CONSEJO RECTOR



LEHENDAKARIA
PRESIDENTE

Iñaki
Nubla Otaola
KONFEKOOP



LEHENDAKARIORDEA
VICEPRESIDENTE

Mikel
Larrea Azpeitia
KONFEKOOP



IDAZKARIA
SECRETARIO

Patxi
Olabarria
Furundarena
KONOPERATIBEN
KONTSEILUA

KIDEAK VOCALES



Andoni
Larrañaga Ortiz
KONFEKOOP



Juan Manuel
Cano Pérez
KONFEKOOP



Susana
Andrés Gorgojo
KONFEKOOP



Pablo
Durana Duque
KONOPERATIBEN
KONTSEILUA



Belén
Balerdi Ozaeta
KONOPERATIBEN
KONTSEILUA

ZUZENDARIA DIRECTOR



Fco. Javier
Sanz Santaolalla



LEHENDAKARIAREN AGURRA
SALUDO DEL PRESIDENTE

Irakurle agurgarria:

Berriro egin dugu!!! 140 kooperatiba berri sortu ditugu, eratzeko unean 445 lanpostu eta 795 bazkide izan dituztenak. Eta hori guztia zailtasunez betetako egoera batean, ekintzailtza kolektiboa batere erraza ez den une batean. Ziurgabetasun handiko testuinguru geopolitikoa bizi dugu, gure artean baititugu mundu osoan eragina duten bi gerra, pandemiaren azken ondorioak, berotze globalaren ondoreak, digitalizazioak dakarren eten teknologikoa eta adimen artifiziala. Aitzitik, Euskadi egoera ekonomiko onean dago, langabezia-indizea ia teknikoa da, inflazioa kontrolatuta dago, diru-bilketan errekorra lortu da, lan-eskaintza publiko garrantzitsuak ditugu eta abar, baina horrek ez du ekintzailtza laguntzen.

Egoera, berez, ez da aproposa ekiteko, erantzukizunak hartzeko, zorpetzeko, arriskua duten merkatuetan eta eremuetan sartzeko, ezta lan eta egoera egonkorrak bertan behera uzteko ere. Hala ere, zenbaitek halakorik egitea pentsatzen du, aztertzen du, partekatzen du, eta argi duenean, aurrera egiten du.

Eta hor dago ELKAR-LAN S. COOP., Kooperatibak Sustatzeko Elkarteak, aholku emateko eta ekintzaileei kooperatiba sortzeko prozesu osoan laguntzeko. Ekintzailtza kolektiboaren eta kooperatibismoaren inguruan ezagutza eta esperientzia zabala duten lau kidek prozesuan zehar azaltzen diren arazoaren konponbideak biltzen dituzte, eta ekintzaileei laguntzen diete aurrean aurkitzen dituzten ziurgabetasun-egoerak, gaitasunik ezak, burokrazia eta era guztietako oztopoak gainditzen. Kooperatiba sortu ondoren ere, tutoretza-lanetan jarraituko dute urtebetez. Proiektua sendotzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzen. Eta ez hori bakarrik. Erakundeetako teknikariei eta preskriptoreei ere eredu kooperatiboa sustatzeko eta indartzeko laguntza eta prestakuntza eskaintzen diete.

Estimada lectora:

¡¡¡Lo hemos vuelto a hacer!!! Hemos creado 140 nuevas cooperativas, con 445 empleos y 795 personas socias en el momento de la constitución. Y todo ello en un momento difícil, que no invita al emprendimiento colectivo. Vivimos en un contexto geopolítico de incertidumbre, con dos guerras de repercusión mundial, las últimas secuelas de la pandemia, los efectos del calentamiento global, la disrupción tecnológica que crea la digitalización y la inteligencia artificial. En sentido contrario, pero que tampoco ayuda al emprendimiento, la buena situación económica que vive Euskadi, con un índice de paro casi técnico, con la inflación controlada, con récord de recaudación, con fuertes ofertas públicas de empleo, etc.

Esta situación, “per se”, no invita a emprender, asumir responsabilidades, endeudarse, entrar en mercados y ámbitos de actuación arriesgados, en algunos casos abandonar trabajos y situaciones consolidadas. Y, sin embargo, hay gente que lo piensa, lo medita, lo comparte, y cuando lo tiene claro, se lanza.

Y ahí está ELKAR-LAN, S. COOP., la Sociedad para la Promoción de Cooperativas, para asesorar y acompañar a los emprendedores en todo el proceso de creación de la cooperativa. Cuatro personas con un amplio conocimiento y bagaje en el emprendimiento colectivo y el cooperativismo, buscando la solución a las diferentes problemáticas que se presentan, acompañando a las personas promotoras a superar las incertidumbres, las incompetencias, la burocracia, los frenos de todo tipo con los que se topan. Y una vez creada la cooperativa, su tutorización durante un año. Dando asesoramiento y apoyo para la consolidación del proyecto. Y no sólo eso. También apoyando y formando a personas técnicas de las Instituciones y prescriptores en el fomento y fortalecimiento del modelo cooperativo.

Zerbitzu-eskaintza azaldu ondoren, lehenik eta behin, ongietorria eman nahi diet kooperatiba eta kooperatibista berriei; bigarrenik, talde teknikoa zorionduko dut, egiten duen lan garrantzitsu bezain egokiagatik; hirugarrenik, eskerrik asko Kontseilu Errektoreari, KONFEKOOP eta KOOPERATIBEN KONTSEILUA erakunde bazkideen ordezkari denari, aholkularitza-jardunagatik eta sozietatearen baterako finantzaketan egiten duen lanagatik. Eta, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet kanpoko finantzataleei, hainbat kooperatibari eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, ekintzaitza kolektiboko programetan ELKAR-LAN S. COOP. sozietatearen parte-hartzea ahalbidetzeagatik.

Jarraian, memoriako apartatuen berri zehatzagoa jasotzeko gonbita egiten dizut. Zure esanetara izango naiz edozein zalantza argitzeko edo iradokizunen bat egin nahi badiguzu.

Iñaki Nubla Otaola
Lehendakaria

Con esta hoja de servicios, sólo me queda, en primer lugar, dar la bienvenida a las nuevas cooperativas y personas cooperativistas; en segundo lugar, felicitar al equipo técnico por su trascendental y acertada labor; en tercer lugar, al consejo rector, en representación de sus entidades socias KONFEKOOP y KOOPERATIBEN KONTSEILUA, por su labor consejera y de cofinanciación de la sociedad. Y, en cuarto lugar, agradecer a los financiadores externos, cooperativas varias y especialmente al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia por posibilitar la participación de ELKAR-LAN, S. COOP en sus programas de emprendimiento colectivo.

Y ahora, le invito a profundizar en los distintos apartados de la Memoria, además de ponerme a su disposición para cualquier aclaración o sugerencia que tenga a bien realizarnos.

Iñaki Nubla Otaola
Presidente

GURE ESKER ONA

ELKAR-LAN S. COOP. sozietateko Kontseilu Errektoreak eskerrak eman nahi dizkie kooperatiba osatzen duten langile guztiei, 2023an egindako lan handiagatik, eta, aldi berean, bide emankor horretan jarraitzera animatu nahi ditu.

Gure esker ona, halaber, euren laguntza eskaini diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei. Aipamen berezia egin nahi diegu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailari.

Eta, jakina, ELKAR-LAN S. COOP. kooperatibako bi erakunde bazkideetako (KOOPERATIBEN KONTSEILUKO eta KONFEKOOPeko) arduradunei, baita laguntza eskaini diguten gainerako kooperatibei ere (2023ko Memoria honetan jasota dago zerrenda).

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu ELKAR-LAN S. COOP. sozietatearekin lankidetzan aritu diren aholkularitza-enpresei, tokiko garapen-agentziei, landa-garapeneko agentziei, kuadrillei, udal-erakundeei eta bestelako erakundeei ere. Haiei esker, oso emaitza onak lortu ditugu sustapen kooperatiboaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan 140 kooperatiba sortzen lagundu baitugu, besteak beste.


AGRADECIMIENTOS

El Consejo Rector de ELKAR-LAN, S. COOP. quiere agradecer al conjunto de las personas trabajadoras que forman parte de ELKAR-LAN, S. COOP. por el gran trabajo que han llevado a cabo en 2023, a la par que los anima a seguir por este fructífero camino.

Agradecemos también al conjunto de instituciones públicas y privadas que nos han ofrecido su colaboración, y en especial a la Dirección de Economía Social del Departamento de Trabajo y Empleo y al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y, por supuesto, a los responsables de las dos entidades socias de ELKAR-LAN, S. COOP.: KOOPERATIBEN KONTSEILUA y KONFEKOOP, así como a las cooperativas que nos han apoyado y cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria 2023.

Extendemos también nuestro agradecimiento al conjunto de asesorías, agencias de desarrollo local, agencias de desarrollo rural, cuadrillas, entidades municipales y otras instituciones que han colaborado con ELKAR-LAN, S. COOP. para hacer posible los resultados que hemos obtenido en materia de promoción cooperativa y que se han concentrado principalmente en el apoyo a la constitución de 140 cooperativas en la Comunidad Autónoma Vasca.



INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA
INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN

Gure hogeita batgarren ekitaldia amaitu dugu. Atzean utzi ditugu Covid-19aren pandemiaren azken ondorioak, baina Errusiak Ukraina inbaditu izanak piztutako gerraren eragina pairatzen jarraitzen dugu. Gatazka horrek XX. mendetik ezagutzen ez genuen egoera ekonomiko eta soziala eragin du Europan. Eta gertakari horri Gazako gerra eta horrek Itsaso Gorriko nabigazioan izan ditzakeen ondorioak gehitu zaizkio. Aurreko ekitaldiko inflazio-indizea oneratu egin da, hein batean; baina, dena den, azpiko inflazioa % 3,8koa izan da abenduan, eta gomendagarria den mailatik gora egoten jarraitzen du. Urteko KPIaren aldakuntza % 3,1ekoa da. Urteko Euriborra % 3,68koa izan da abenduaren amaieran, eta Europako Banku Zentralak (EBZk) ezarritako interes-tasa % 4ra iritsi da 2023an. Gainera, lehengaien eta elikagaien prezioak apaldu egin dira, eta sortutako energia-kostuak ez dira izan aurreko ekitaldikoak bezain handiak. Beraz, egoera ekonomikoa aurreko ekitaldiko baina hobea izan da, baina zalantzek hor diraute, eta datorren 2024ko ekitaldian argitu beharko dira.

Hori guztia dela eta, pozik gaude gure kudeaketa-planean ezarri genituen aurreikuspen nagusiak gainditu ditugulako eta, bereziki, lehentasun dugun helburua bete ahal izan dugulako: kooperatiba berriak eratzen laguntzea. Horretarako, egoera berrietara egokitzen jarraitu dugu eta gure sozietate-eredu berezia zabaltzeko jardueri eutsi diegu; izan ere, gure sozietate-eredu hori da bazkideen parte-hartzea legez eta benetan ahalbidetzen duen bakarra.

Gizarte-ekonomiako sozietate-mota guztien artean, pertsonen partaidetza-eredu gorena sozietate kooperatiboa dela aldarrikatzen jarraitu dugu, enprestan pertsonen benetako partaidetzaren garrantzia aitortzen ari den honetan.

Gure hartzaile izan daitezkeenei jakitera eman diegu kooperatiba bat zer den, enpresa-eredu horren berezitasunak, baretik autorregulatzeko duen aukera, zerga-erregimen berezia, berriazko laguntzak, kontabilitate-berezitasunak, Gizarte Segurantzako araubidea hautatzeko aukera (lan elkartuko kooperatiben kasuan, kooperatibistek Araubide Orokorrean edo Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzea erabaki dezakete) eta abar. Azken batean, beste sozietate-egiturekin alderatuta gure ereduak dituen abantailak eta aldeak azpimarratu dizkiegu.

Hemos concluido nuestro vigésimo primer ejercicio recuperados ya de las últimas secuelas de la pandemia de Covid 19, si bien continuamos con los efectos de la guerra provocada por la invasión de Rusia en Ucrania, que ha provocado una situación económica y social no conocida en toda Europa desde el siglo XX, a la cual debemos añadir la guerra de Gaza y sus posibles impactos en la navegación del Mar Rojo. Con una recuperación parcial de los índices de inflación del ejercicio precedente, sin menoscabo de seguir teniendo una inflación subyacente, a diciembre, del 3,8 % superior a la aconsejable, con una variación en el IPC anual del 3,1 %. Con un cierre en diciembre del Euribor anual al 3,68 % y el tipo de interés fijado por el BCE habiendo alcanzado este año el 4 %, además de haberse moderado los precios de materias primas y alimentos, generándose unos costes energéticos menos elevados que en el ejercicio precedente. En definitiva, una situación económica mejor que la del anterior ejercicio, pero todavía con incertidumbres a despejar en el próximo ejercicio 2024.

Por todo ello, estamos satisfechos de haber superado las principales las previsiones fijadas en nuestro plan de gestión y, especialmente, de haber podido llevar a cabo el cumplimiento de nuestro objetivo prioritario, que no es otro que contribuir a la creación de nuevas cooperativas, para lo que hemos seguido adaptándonos a la nuevas situaciones, manteniendo las actuaciones de difusión de nuestro peculiar modelo societario, que sigue siendo el único que posibilita, de forma real y legal, la participación de las personas socias que las integran.

Hemos seguido reivindicando, y más aún en estos momentos en los que se está reconociendo la importancia de la participación real de las personas en las empresas, que la sociedad participada por excelencia, en su máxima expresión, dentro de las diferentes modalidades societarias de la economía social, es la Sociedad Cooperativa.

Hemos dado a conocer entre nuestros potenciales destinatarios lo que es una cooperativa, sus peculiaridades, su posibilidad de autorregularse de forma interna, el régimen fiscal especial que tienen, sus ayudas específicas, las especialidades contables, la posibilidad de elegir el encuadramiento en la Seguridad Social (en el caso de las Cooperativas de Trabajo Asociado, entre el Régimen General y el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos). En definitiva, resaltando sus ventajas y sus diferencias respecto a otras configuraciones societarias.

Sortu ginenetik, kooperatiba-eredua zabaltzen eta gomendatzen laguntzen diguten erakundeen eta pertsonen sare bat sortzea, mantentzea eta handitzea izan da gure apustuetakoa bat, eta gure esker ona adierazi nahi diegu, lan bikaina egin dutelako, eta gurekin jarraitzea animatu nahi ditugu, gure eredu gero eta ezagunagoa eta erabiliagoa izan dadin. Horregatik guztiagatik, gure berri zuten pertsonekin eta erakundeekin genituen harremanak zaindu eta indartu ditugu, eta,aldi berean, harremanak sortu ditugu beste erakunde eta pertsona batzuekin, ELKAR-LAN S. COOP. sozietatearen errealitatea eta lankidetzarako bideak ezagutarazteko, betiere haien beharretara egokituta.

Hona hemen helburu hori lortzeko burutu ditugun jarduerak:

1. ELKAR-LAN S. COOP. ETA BERAREN JARDUERAK AURKEZTEKO BANAKAKO BILERAK ETA DAGOENEO EZAGUTZEN GAITUZTEN ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

Honako erakunde hauekin bildu gara:

ENPRESA- ETA BERRIKUNTZA-ZENTROAK ETA ENPRESAK SUSTATZEKO ZENTROAK

Eutsi egin diegu zentro horiekiko harremanei, bai haiek eskatuta, bai gure ekimenez.

TOKIKO GARAPEN-AGENTZIAK, KUADRILLAK ETA BEHARGINTZA ZENTROAK

Harreman onak eta zuzenak izan ditugu zentroek izendatutako solaskideekin, eta, eskatu digutenean, eredu kooperatiboa ezagutu nahi duten sustatzaileekin bilerak egin ditugu euren lokaletan. Urrats hori ezinbestekoa da sustatzaileek kooperatiba-elkarteen eredu ezagutu dezaten, eta hausnar dezaten ea komeni zaien euren enpresa-proiektua kooperatiba gisa gauzatea, sozietateak eratzeko dauden aukera guztien artean.

Desde nuestra constitución, hemos apostado por la generación, mantenimiento y crecimiento de una red de entidades y personas colaboradoras en toda nuestra actividad de difusión y prescripción del modelo cooperativo, y queremos dejar constancia de nuestro agradecimiento expreso, por su magnífica labor, y les instamos a que continúen con nosotros para que cada vez sea más conocido y aplicado nuestro modelo. Por todo ello, hemos atendido y reforzado las relaciones con las personas y entidades que ya tenían conocimiento de nuestra existencia y, al mismo tiempo, hemos gestionado y generado con nuevas entidades y personas, los correspondientes contactos para darles a conocer la realidad de ELKAR-LAN, S. COOP. y las vías de colaboración que les brindamos, adaptándonos a sus necesidades.

Para abordar dichos objetivos se han realizado las siguientes actuaciones:

1. REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S. COOP., ASÍ COMO DE SUS ACTIVIDADES Y RELACIONES CON ENTIDADES QUE YA NOS CONOCEN

Estas reuniones, se han celebrado con las entidades siguientes:

CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACIÓN Y CENTROS DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

Hemos mantenido contactos con dichos centros, tanto a instancia de ellos como por nuestra propia iniciativa.

AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL, CUADRILLAS Y CENTROS BEHARGINTZA

Hemos mantenido contacto fluido y directo con las personas designadas como interlocutoras de estos centros y, cuando éstas así nos lo han requerido, hemos asistido a reuniones en sus locales con las personas promotoras interesadas en conocer el modelo cooperativo, paso este imprescindible para que podamos hacer reflexionar sobre la conveniencia de poder realizar su proyecto empresarial en la forma societaria cooperativa, así como para que conozcan dicho modelo y puedan barajarlo entre las diferentes opciones societarias.

txostenamemoria2023

Ekitaldi honetan, Arabako zazpi kuadrillekin lankidetzan aritzeko eskaintza egin dugu: Añana, Aiara, Agurain, Kanpezu-Mendialdea, Guardia-Arabar Errioxa, Gorbeialdea eta Gasteiz. Erakunde horietako teknikari batzuekin izan gara harremanetan.

Bizkaiko Behargintzako zentro hauekin ere modu berean jardun dugu: Basauri-Etxebarri, Bilbao Ekintza, Bermeo, Enkarter, Erandio, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguarde, Leioa eta Meatzaldeko Behargintza.

DEMA Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentziarekin eta BIC Bizkaia Ezkerraldearekin ere harremanak izan ditugu, eta ekitaldiak egin ditugu.

Eta Gipuzkoako tokiko garapen-agentzia hauekin: Beterri-Buruntza Udalak, Urola Kostako Udal Elkar-tea, Debegesa, Ugassa, Oarsoaldea, Debagoieneko Mankomunitatea, Bidasoa Bizirik eta Iraurgi Berritzen.

Aipagarriak dira, bereziki, Gasteizko Udala eta DEMA.

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bidez, harreman estua izan dugu ekitaldi honetan ekintzaileekin, memoria honetako IV. apartatuan zehaztasunez ikusiko dugunez.

DEMAren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia den aldetik, antolatutuen ekitaldi guztietan hartu dugu parte. Halaber, oso harreman onak eta jarraituak izan ditugu agentziak gurekin aritzeko izendatutako pertsona guztiekin, bereziki teknikariek, sozietate kooperatiboaren ereduaren alde egin duten ekintzaileen proiektu guztietan. Agentziako Zerbitzu Orokorren zuzendari Beatriz Morcilloarekin ere oso harreman estua izan dugu. Sarekin Bizkaiko Ekintzaitza Sarean ere lankidetzan ari gara.

UDALAK

EAEko udal guztiei lankidetzarako eskaintza egin diegu, euren udalerrian gutxienez bi lanpostu sortzeko proiektuetarako: gure jardura guztiak haien eskura jarriko ditugu, kooperatiba-sozietatea eratzea erabakitzen badute. Ildo horretan, Otxandioko, Ber-

En este ejercicio, hemos realizado un ofrecimiento de colaboración con las siete Cuadrillas de Araba: Añana, Ayala, Agurain, Campezo-Montaña Alavesa, Laguardia-Rioja Alavesa, Gorbeialdea, y Vitoria-Gasteiz, y hemos tenido relaciones con algunas de sus personas técnicas.

Y con los siguientes centros Behargintza de Bizkaia: Basauri-Etxebarri, Bilbao Ekintza, Bermeo, Enkarter, Erandio, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguarde, Leioa y con Meatzaldeko Behargintza.

También hemos mantenido contactos, y realizado eventos, con la Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento DEMA y con BIC Bizkaia Ezkerraldea.

Y con las Agencias de Desarrollo Local de Gipuzkoa siguientes: Beterri-Buruntza Udalak, Urola Kostako Udal Elkar-tea, Debegesa, Ugassa, Oarsoaldea, Debagoieneko Mankomunitatea, Bidasoa Bizirik e Iraurgi Berritzen.

Merecen una mención especial el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y DEMA.

Con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, con su Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo, hemos tenido una relación intensa con las personas emprendedoras en este ejercicio, tal como detallaremos en el apartado IV de esta memoria.

Con DEMA, como Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento, promovida por la Diputación Foral de Bizkaia, hemos participado en todos los eventos que ha convocado y organizado y así mismo, hemos mantenido contacto fluido y continuo con todas las personas designadas como interlocutoras, especialmente con sus personas técnicas, en todos aquellos proyectos en los que las personas emprendedoras se decantan por la configuración societaria de cooperativa, así como con su Directora de Servicios Generales Dña. Beatriz Morcillo. Y también estamos colaborando en la Red de Emprendimiento de Bizkaia Sarekin.

AYUNTAMIENTOS

Todos los Ayuntamientos de la CAPV tienen nuestro ofrecimiento de colaboración para aquellos proyectos que en sus respectivos municipios pudiesen generar al menos dos puestos de trabajo, al objeto de poder prestarles todas nuestras actividades en el

garako, Elgetako eta Zizurkilgo udalen bidez, bilerak egin ditugu zenbait sustatzaile-talderekin.

GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA

Harreman onak izan ditugu Jokin Díaz Arsuaga Gizarte Ekonomiako zuzendariarekin, Alfredo Ispizua Aholkularitza Juridikoko arduradunarekin eta Ander Rahm (laguntzak) eta Oihane Mugica teknikariek.

LANBIDE

Lanbideren bulego guztiei gure lankidetzak eskaini diegu, gutxienez bi lanpostu sor ditzaketen autoenplegu kolektiboko proiektua abian jarri nahi duten ekintzaileen egitasmoak laguntzeko. Gure jarduera guztiak haien eskura jarriko ditugu, kooperatiba-sozietatea eratzea erabakitzen badute.

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINITZA NAGUSIA

Hainbat gestio egin ditugu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko bulegoetako teknikariek, ekitaldian zehar sortu ditugun kooperatiben beharren arabera.

ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA (SEPE)

Hainbat gestio eta bilera egin ditugu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPEren) EAEko hiru probintzia-zuzendaritzetako arduradun eta teknikariek, baita langabeziaren ordainketa bakarraren espedienteak izapidetu diren tokiko bulegoetako ordezkariekin ere.

MERKATARITZA-GANBERAK

Harreman onak izan ditugu ganbera guztiekin. Horretaz gain, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetako Enpresak Sortzen eta Sendotzen Laguntzeko Zerbitzutik bidali dizkiguten sustatzaileekin bildu gara.

KONTSULTORETZAK ETA AHOLKULARITZAK

Arreta pertsonalizatu berezia eskaintzen jarraitu dugu, 2023ko Memoria honetako 10. apartatuan agertzen den bezala.

caso de que pudiesen constituirse como Sociedades Cooperativas, habiendo tenido reuniones con grupos de promotores derivados de los Ayuntamientos de Otxandio, Bergara, Elgeta y Zizurkil.

DIRECCIÓN DE ECONOMÍA SOCIAL

Hemos mantenido contacto fluido tanto con su Director de Economía Social, D. Jokin Díaz Arsuaga, con D. Alfredo Ispizua (Responsable de Asesoría Jurídica), y con los técnicos D. Ander Rahm (Ayudas) y D^a Oihane Múgica.

LANBIDE

Todas las oficinas de Lanbide tienen nuestro ofrecimiento de colaboración para todas aquellas personas emprendedoras que quieran poner en marcha proyecto de autoempleo colectivo que genere al menos dos puestos de trabajo, al objeto de poder prestarles toda la gama de nuestras actividades que pudiesen precisar en el caso de que pudiesen constituirse como Sociedades Cooperativas.

TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL

Se han realizado diferentes gestiones con las personas técnicas de las oficinas de la Tesorería General de la Seguridad Social de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, en función de las necesidades de las cooperativas que hemos constituido a lo largo del ejercicio.

SERVICIO PUBLICO DE EMPLEO ESTATAL (SEPE)

Se han realizado diferentes gestiones y reuniones con las personas responsables y técnicas de las tres Direcciones Provinciales de la CAPV del Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE), así como en las oficinas locales donde se han tramitado expedientes de pago único del desempleo.

CÁMARAS DE COMERCIO

Hemos tenido contacto fluido con todas ellas y se ha atendido a las personas promotoras que nos han remitido desde el Servicio de Apoyo a la Creación y Consolidación de Empresas de las Cámaras de Comercio de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

CONSULTORÍAS Y ASESORÍAS

Siguen siendo objeto de una especial atención personalizada, tal y como se refleja en el apartado 10 de este capítulo de la Memoria 2023.

FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK

Honako hauekin izan dugu harremana:

- Michelin Fundazioa
- Leartibai Fundazioa
- Gaztenpresa Fundazioa
- Mugarik Gabeko Ekonomialariak Fundazioa
- Novia Salcedo Fundazioa
- Mundukide Fundazioa
- Lan Enpresen Nafarroako Elkarte (ANEL)
- Bizkaiko Work-Lan elkarte
- Kooperatiba Zuzenbideko Nazioarteko Elkarte (AIDC)

FORU-ALDUNDIAK

Harremanetan egon gara gure autonomia-erkidegoko hiru lurralde historikoetan sustatutako kooperatibentzat interesgarriak diren eskumenak eta erantzukizunak dituzten sailekin. Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiarekin izan ditugu harremanik estuenak, langabezian eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko 2023ko ekitaldiko dirulaguntza-deialdien bidez (162/2022 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA ETA DEMA

Sail horrek DEMAren (Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentziaren) bidez Sarekin Bizkaiko Ekintzailtza Sarea sortzeko sustatu zuen proiektuko partaide gara. 2023ko ekitaldian, Enpresak Sortzeko eta Martxan Jartzeko Taldean hartu dugu parte, baita, gainera, Sarekin Days 2023 Ekintzailtza buruzko Jardunaldien IV. edizioan ere. Jardunaldien barruan gure erakundea aurkezteko ekitaldia egin zen, eta aukera izan genuen ULUWATU KOOP. ELK. TXIKIA sustaileen eskutik jendaurrean ezagutzera emateko, ELKAR-LAN S. COOP. sozietateak sustatutako kooperatiba baita. Jardunaldiak Iberdrola Dorrean egin ziren, Bilbon, azaroaren 26an eta 27an.

FUNDACIONES Y ASOCIACIONES

Se han mantenido relaciones con:

- Fundación Michelin
- Leartibai Fundazioa
- Fundación Gaztenpresa
- Fundación Economistas Sin Fronteras
- Fundación Novia Salcedo
- Mundukide Fundazioa
- Asociación Navarra de Empresas Laborales (ANEL)
- Asociación Work-Lan de Bizkaia
- Asociación Internacional de Derecho Cooperativo (AIDC)

DIPUTACIONES FORALES

Se han mantenido relaciones con los Departamentos, con competencias y responsabilidades de interés para las cooperativas que hemos promovido, de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma, si bien de forma más estrecha lo hemos hecho con la Diputación Foral de Bizkaia a través de las convocatorias de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas para personas desempleadas y en riesgo de exclusión, para el ejercicio 2023 (DECRETO FORAL 162/2022, de 27 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia).

DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y DEMA

Formamos parte del proyecto que promovió el citado Departamento, a través de DEMA como Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento, en la creación de la Red de Emprendimiento de Bizkaia Sarekin, y durante el presente ejercicio hemos participado en el Grupo de Creación y Puesta en Marcha de Empresas, y además hemos participado en las IV Jornadas del Emprendimiento en Bizkaia Sarekin Days 2023. En uno de sus actos se presentó a nuestra entidad y se nos permitió realizar la presentación de ULUWATU, KOOP. ELK. TXIKIA, una cooperativa promovida por ELKAR-LAN, S. COOP., de la mano de uno de sus promotores. Dichas Jornadas se celebraron en la Torre de Iberdrola, en Bilbao, los días 26 y 27 de noviembre.

EUSKADIKO TOKIKO GARAPEN-AGENTZIEN ELKARTEA (GARAPEN)

Harreman onak ditugu elkarteko kudeatzaile Elisabet Urbietarekin eta Zerbitzu Orokorretako arduradun Ainara Egiluzekin, sozietate kooperatiboaren ereduaren bidez gauza daitezkeen autoenplegu kolektiboko proiektuekin zerikusia duten gai guztietan.

KONFEKOOP (EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA)

Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuak deitutako bilera batean hartu genuen parte, zenbait erakunde eta taldetako ordezkariekin batera, Departamentuarentzat interesgarriak diren gaiak aztertzeko helburuarekin. Bilera-buru izan ziren Jokin Perona Lerchundi, ogasun-diputatua; Luis Javier Irastorza Letamendia, zerga-arloko eraldaketa teknologikoko zerbitzuko burua; Yolanda Domínguez Román, zerga-kudeaketako zuzendariorde nagusia; Iñigo Balerdi Lizarralde, araugintzako eta lege-aholkularitzako zerbitzu-burua, eta aipatutako departamentuko beste kargu batzuk (Donostia, 2023-11-29).

UNIBERTSITATEAK ETA BESTELAKO ERAKUNDEAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak (GEZKIK), Deustuko Unibertsitateko Kooperatiba Ikaskuntzen Institutuak eta Mondragon Unibertsitateak antolatutako ekitaldi eta bileretan hartu dugu parte, baita Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren Sailak eta foru-aldundiek antolatutako ekitaldietan ere, memoria honetako VII. apartatuan azalduko dugunez.

2. ONURA PUBLIKOKO KOOPERATIBA GARELA JAKINARAZTEA

Ohorea da guretzat 2005etik ELKAR-LAN S. COOP. sozietatea onura publikoko kooperatiba gisa izendatuta egotea, egiten duen jarduera dela eta; izan ere, **Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2005eko martxoaren 16an emandako AGINDUAK onura publikoko elkartetzat izendatu zuen kooperatibak sustatzeko ELKAR-LAN S. COOP. kooperatiba-sozietatea** (2005eko apirilaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako agindua).

ASOCIACIÓN DE AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL DE EUSKADI (GARAPEN)

Mantenemos contacto fluido con su Gerente Dña. Elisabet Urbieta y con la responsable de Servicios Generales Dña. Ainara Egiluz, para todas aquellas cuestiones que tienen que ver con proyectos de autoempleo colectivo en forma societaria cooperativa.

KONFEKOOP (CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE EUSKADI)

Participamos, por ofrecimiento del Departamento de Hacienda y Finanzas de Gipuzkoa, con representantes de diversos organismos y colectivos, con el objeto de tratar temas departamentales de interés, que estuvo presidido por el Diputado de Hacienda D. Jokin Perona Lerchundi, el Jefe de Servicio de Transformación Tecnológica Tributaria D. Luis Javier Irastorza Letamendia, la Subdirectora General de Gestión Tributaria Dña. Yolanda Domínguez Román, el Jefe de Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico D. Iñigo Balerdi Lizarralde y otros cargos del citado departamento (Donostia, 29-11-2023).

UNIVERSIDADES Y OTRAS ENTIDADES

Hemos participado en eventos y reuniones de los Institutos Cooperativos y de Economía Social de la Universidad del País Vasco (GEZKI) y de la Universidad de Deusto, así como con Mondragon Unibertsitatea, y también en eventos organizados por el Departamento de Promoción del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de las Diputaciones Forales, tal como posteriormente se expondrá en el apartado VII de esta Memoria.

2. DIFUSIÓN DE NUESTRA CONDICIÓN DE COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA

Es para nosotros un honor que desde el año 2005, nuestra entidad, por la actividad que realiza, es reconocida como una Cooperativa de Utilidad Pública, a tenor de lo dispuesto en la **ORDEN de 16 de marzo de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP.** (Publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 20 de abril de 2005).

Gure jardueren hartzailleek onura publikoko izendapenaren berri izan dezaten, komunikazio- eta hedapen-ekintzak egin ditugu, agerian uzteko gure jarduerak Euskadiren interes orokorra sustatzen laguntzen dutela. Harro gaude horretaz, bat baitator gure misioarekin eta onartu eta zabaltzen ditugun balio eta printzipio kooperatiboekin.

3. KOOPERATIBA BIHURTZEKO LAGUNTZEI ETA INTERESA DUTEN ENPRESAK BISITATZEARI BURUZKO ZIRKULARRAK EAE-KO ENPRESETAN MASIBOKI ZABALTZEA

Berriazko zirkular baten bidez, kooperatibak ez diren EAEko enpresa txikiei kooperatiba bihurtzeko laguntzen berri eman die ELKAR-LAN S. COOP. sozietateak.

Jarduera horien ondorioz, 12 enpresak erakutsi zuten zirkular horien edukiri buruzko interesa. Enpresa horietara bisita egin, beharrezko gestioak gauzatu eta bilerak edo harremanak finkatu ziren jabeekin edo akziodun nagusiekin, zuzenean eta isilpean.

4. IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEA

Gure euskarri grafikoak erabiltzen eta optimizatzen ari gara, gure irudi korporatiboa zabaltzeko; esate baterako, jardueren memoria, triptikoak, zirkularrak, jardunaldien deialdiak eta web-orria (www.elkarlan.coop).

Gure web-orriari dagokionez, azpimarragarria da etengabe eguneratzen dela eta gero eta gehiago zabaltzen dela sarean.

5. HARREMANAK AUTONOMIA-ERKIDEGOKO NOTARIOTZEKIN, KOOPERATIBAK ERATZEKO LANA ERRAZTEKO

Kooperatiba-eredua hedatzea izanik gure helburu estrategikoetako bat, talde kualifikatu horrekin ere harreman ugari izan ditugu. Horren ondorioz sumatu dugu notariotzak, oro har, koordinatuago eta eraginkortasun handiagoz ari direla gauzatzen kooperatibak eratzeko izapideak, batez ere kooperatiba eratzeko eskrituraren euskarri elektronikoa erabiltzen ari baitira. Esku-hartze zuzenak eta onak izan ditu-

Y con el objetivo de que esta Declaración de Utilidad Pública sea conocida por los destinatarios de nuestras actuaciones, se han realizado las actuaciones de comunicación y de difusión, para poner de manifiesto que nuestras actividades están contribuyendo a la promoción del interés general de Euskadi, lo cual nos enorgullece, además de ser coherente con nuestra misión y con los valores y principios cooperativos que asumimos y difundimos.

3. DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS Y VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS

ELKAR-LAN, S. COOP. ha informado a las empresas pequeñas no cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco mediante una circular específica, de las ayudas existentes para su transformación en cooperativa.

Como fruto de estas actuaciones, se visitaron y se realizaron gestiones con 12 empresas que se interesaron por su contenido, manteniendo siempre las reuniones o relaciones con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios, de forma directa y confidencial.

4. IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINA WEB

Estamos aprovechando y optimizando nuestros diferentes soportes gráficos, desde la memoria de actividades hasta los trípticos, circulares, convocatorias de jornadas y la página web (www.elkarlan.coop), para difundir nuestra imagen corporativa.

En lo que se refiere a nuestra página web, queremos resaltar su actualización constante y su mayor difusión en la red.

5. RELACIONES CON LAS NOTARÍAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA FACILITARLES SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS

Siendo uno de nuestros objetivos estratégicos la difusión del modelo cooperativo, también con este colectivo tan cualificado hemos mantenido múltiples contactos y relaciones, y como consecuencia de ello, estamos percibiendo que, en general, las notarías están realizando las tramitaciones de las constituciones de cooperativas de una forma más coordinada y eficiente, sobre todo con la utilización

gu notariotzekin ekitaldi honetan; hala, sendotu egin dugu haiekiko harremana.

6. HEDABIDEETAN EGINDAKO ELKARRIZKETAK ETA PARTE-HARTZEAK

Gure erakundea albiste izan da hainbat hedabideetan (telebista, irrati, egunkari eta ekonomia-arloko aldizkarietan), egin duen sustapen-jardueragatik. Aldizkari espezializatuetan ere agertu da, hala nola KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo eta Estrategia Empresarial aldizkarietan.

Horretaz gain, EAEko prentsa eta irratarik garrantzitsuenetako batzuetan ere kolaborazioak egin ditugu, kooperatibak sustatzeko bokazioaren berri eman eta euskal gizartea kooperatibak sortzeko bidean jartzeko asmoarekin.

7. BESTE HAINBAT EKITALDITAKO PARTAIDETZA

ELKAR-LAN S. COOP. osatzen dugunok ekitaldi hauetan hartu dugu parte:

- KOOPERATIBEN KONTSEILUA erakundeak eskatuta, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregulamendu-proiektua arautzeko proposamen batzuen inguruko iritzia azaldu genuen, KONFEKOOPeko teknikari juridikoekin batera, ekitaldi batean. Bertan izan ziren, halaber, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko lehendakaria, idazkari teknikoa eta letrado aholkularia (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren egoitza, Gasteiz, 2023-01-11).
- Langile Autonomoen Araubide Berezian izandako aldaketei buruzko web-mintegian hartu genuen parte. Antolatzailea: COCETA – Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa (2023-01-13).
- Euskadiko eta Nafarroako Enpresa Kooperatiboen I. Foroan hartu genuen parte. Ekitaldiaren goiburua: «Enpresa kooperatiboak eta garapen ekonomikoa, etorkizunerako aukera irabazlea» (Miramar jauregia, Donostia, 2023-01-25).
- Industria Antolakuntzako Eskolak antolatutako Marketin Digitaleko ikastaroen aurkezpenean hartu genuen parte. Ikastaroak Sevillan, Madrilan eta

de la escritura de constitución en soporte electrónico. Ha sido un año de actuaciones directas y fluidas que ha venido a consolidar nuestra relación con las notarías.

6. ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN

Nuestra entidad ha sido noticia por su actividad promotora en diferentes medios de comunicación, tanto de televisión, radio, prensa diaria y de índole económica, así como en revistas especializadas tales como KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo, y Estrategia Empresarial.

También ha participado y colaborado en diversos medios de comunicación, tanto escritos como en las radios de mayor implantación en nuestra Comunidad Autónoma, con el objetivo de transmitir nuestra vocación de promoción cooperativa y animar a la sociedad vasca a emprender cooperativamente.

7. PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS

Las personas que integramos ELKAR-LAN, S. COOP. hemos participado en los eventos siguientes:

- Participamos y comentamos, por petición de KOOPERATIBEN KONTSEILUA, junto con los técnicos jurídicos de KONFEKOOP, algunas propuestas de la regulación del proyecto de Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi, con asistencia del Presidente, de la Secretaria General Técnica y del Letrado Asesor del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi (Sede del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi. Vitoria-Gasteiz, 11-01-2023).
- Participamos en un webinar sobre las modificaciones introducidas en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos. Organiza COCETA (Confederación Española de Cooperativas de Trabajo Asociado, 13-01-2023).
- Asistimos al I Foro de Empresas Cooperativas de Euskadi y Navarra: Empresas Cooperativas y Desarrollo Económico, una opción ganadora (Palacio Miramar. Donostia, 25-01-2023).
- Participamos en la presentación de Cursos de Marketing Digital, que efectuó la Escuela de Organización Industrial, que se iban a realizar en Se-

Leioan (Bizkaian) egitekoak ziren, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duten 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta, kooperatiba bat edo bi sortzeko helburuz. Prestakuntza kooperatiboan eta kooperatiba martxan jartzen laguntzeko aukera (Bideokonferentzia, 2023-01-25).

- Euskadiko belaunaldiarteko errelebo-prozesuaren inguruko azterketaren emaitzak aurkezteko saioan egon ginen. Antolatzaileak: Deustuko Unibertsitatea, Alecoop eta Isea (Garaia parke teknologikoa, Arrasate, 2023-02-01).
- Sozietateen memoria ez-laburtuaren ereduaren berrikuspen teknikoan hartu genuen parte. Honako hauekin batera: Espainiako Ekonomisten Kontseilu Nagusia, REA Auditores eta EC Economistas Contables (2023-02-08).
- Gure zuzendaria, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko lehendakari ohia denez, erakundearen 40. urteurrena dela-eta Eusko Legebiltzarrean izandako agerraldian egon zen (Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2023-02-21).
- Euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozeduren inguruko Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Erregelamendua aldatzea proposatu zuen Bitartu Batzordean hartu genuen parte (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren egoitza, Gasteiz, otsailak 21, martxoak 21, apirilak 25, maiatzak 30 eta ekainak 29; azken gainbegiratzea: uztailak 3).
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren 40. urteurrenako ospakizunetan izan ginen (Euskalduna jauregia, Bilbo, 2023-02-27).
- «Enpresaren erronka juridikoak» gaiaren inguruan LKS Nextek antolatutako gosarian izan ginen (Londres hotela, Donostia, 2023-03-02).
- Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunetan izan ginen. Antolatzailea: KOOPERATIBEN KONTSEILUA (Villasuso jauregia, Gasteiz, 2023-03-08).
- Work-Lanek antolatutako Bizkaiko Kooperatiba Txikien VII. Topaketan izan ginen (Bilborock, Bilbo, 2023-03-21).
- «Esperientzia Kooperatiboak: Gobernantza» gaiari buruzko gosaria izan ginen. Antolatzailea: KONFEKOOP (Miñako Teknologia Parkea, 2023-03-23).

villa, Madrid y en Bizkaia (en Leioa) para jóvenes en situación de percepción de RGI entre 16 y 30 años con la finalidad de que de esos cursos puedan constituirse una o dos cooperativas. Posible colaboración en la parte de formación cooperativa y en la puesta en marcha de la o las cooperativas (Videoconferencia, 25-01-2023).

- Asistimos a la sesión de presentación de los resultados del Estudio sobre el Proceso de Relevamiento Generacional en Euskadi. Organizan Universidad de Deusto, Alecoop e Isea (Parque Tecnológico de Garaia. Arrasate-Mondragón, 01-02-2023).
- Participamos en la revisión técnica del modelo de memoria no abreviada de sociedades. Con el Consejo General de Economistas de España. REA Auditores. EC Economistas Contables (08-02-2023).
- Nuestro Director, en su condición de expresidente del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, asistió a la comparecencia que el Parlamento Vasco ofreció a dicha entidad como consecuencia de su 40 aniversario. (Parlamento Vasco. Vitoria-Gasteiz, 21-02-2023).
- Participamos en la Comisión Bitartu que propuso la modificación del Reglamento del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi sobre procedimientos de resolución de conflictos en las cooperativas vascas (Sede del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi. Vitoria-Gasteiz, 21 febrero, 21 de marzo, 25 abril., 30 de mayo y 29 de junio. Supervisión final: 3 de julio).
- Asistimos a la celebración del 40 Aniversario del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi (Palacio Euskalduna. Bilbao, 27-02-2023).
- Asistimos al desayuno, organizado por LKS Next, sobre los “Retos Jurídicos de la Empresa – Save The Date. (Hotel Londres. Donostia, 02-03-2023).
- Asistimos a la celebración del Día internacional de la Mujer. Organizado por KOOPERATIBEN KONTSEILUA (Palacio Villasuso. Vitoria-Gasteiz, 08-03-2023).
- Asistimos al VII Encuentro de cooperativas pequeñas de Bizkaia, organizada por Work-Lan. (Bilborock. Bilbao, 21-03-2023).
- Asistimos al desayuno sobre Experiencias Cooperativas: Gobernanza. Organiza KONFEKOOP (Parque Tecnológico de Miñano, 23-03-2023).

- «Telelanaren diseinu eraginkorra: lan-, zerga- eta merkataritza-alderdiak» gaiari buruzko kafe-solasaldian izan ginen. Antolatzailea: BNFIX (Bideokonferentzia, 2023-03-28).
- Sozietate Kooperatiboari buruzko Eskuliburua egin genuen, ekintzailatza kolektiboko proiektuen orientatzaileentzat. KONFEKOOPen eskariz (2023-04-24).
- Kooperatiba Mugimenduaren Batzorde Juridikoan parte hartu zuten kideekin batera, Gizarte Ekonomia Sustatzeko Lege Integralaren aurreproiektuari buruzko idatzia egin genuen, KONFEKOOPen eskariz (2023-04-21).
- Noticias taldeko komunikabideetan argitaratzeko artikulua idatzi genuen: «La Sociedad Cooperativa como alternativa para las empresas con problema de relevo generacional para los trabajadores» (2023-05-08).
- KONFEKOOPen Ohiko Batzar Nagusian izan ginen, baita Orkestrako (Deustuko Lehiakortasunerako Euskal Institutuko) lehendakari Ivan Martén Uliartek eskainitako hitzaldian ere. «Trantsizio energetikoa eta lehiakortasunean duen eragina» gaiaren inguruan hitz egin zuen (Aquariuma, Donostia, 2023-05-10).
- Sarekin Bizkaiko Ekintzailatza Sarearekin honako jarduera hauek egin ditugu 2023an:
 - Sarekin Sarearen osoko bilkuran egon ginen. Antolatzaileak: DEMA (Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu eta Ekintzailatza Foru Agentzia) eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Euskalduna jauregia, Bilbo, 2023-02-03).
 - Kultura Ekintzailearen Komunitatearen Topaketan hartu genuen parte, Sarekin Sarearen esparruan (Merkataritza Ganbera, 2023-05-12).
 - Sarekin Sareko eragileen arteko networkingeko jardunaldian izan ginen (Euskalduna jauregia, Bilbo, 2023-06-07).
 - «Atzerritartasuna eta lana» gaiaren inguruko presetakuntza-plan esperimentalari buruzko saioan egon ginen (DEMA, Barakaldo, 2023-06-21).
 - Sarekin Days 2023 Bizkaiko Ekintzailatzari buruzko Jardunaldien IV. edizioan hartu genuen parte. Ekitaldietako batean gure erakundea aur-
- Asistimos al Café sobre “El Diseño Eficiente del Teletrabajo. Aspectos Laborales, Fiscales y Mercantiles. Organiza BNFIX (Videoconferencia, 28-03-2023).
- Elaboramos el Manual sobre la Sociedad Cooperativa para las personas orientadoras de proyectos de emprendimiento colectivo. Encomendado por KONFEKOOP (24-04-2023).
- Elaboración, junto con los miembros que participaron en la Comisión Jurídica del Movimiento Cooperativo, sobre el Anteproyecto de la Ley Integral del Impulso de la Economía Social, que se solicitó por KONFEKOOP (21-04-2023).
- Elaboramos un artículo para publicar en el grupo noticias: “La Sociedad Cooperativa como alternativa para las empresas con problema de relevo generacional u para los trabajadores” (08-05-2023).
- Asistimos a la Asamblea General Ordinaria de KONFEKOOP y a la ponencia impartida por Iván Martén Uliarte, presidente de Orkestra - Instituto Vasco de Competitividad de Deusto, sobre “Transición energética e impacto en la competitividad”. (Aquarium. Donostia, 10-05-2023).
- Nuestras actividades con la Red Sarekin (Red de Emprendimiento de Bizkaia durante el presente ejercicio ha sido las siguientes:
 - Asistimos a la sesión plenaria de la Red Sarekin. Organizan DEMA Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento de la Diputación Foral de Bizkaia) y el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad (Palacio de Euskalduna. Bilbao, 03-02-2023).
 - Participamos en el Encuentro de la Comunidad de Cultura Emprendedora, en el marco de la Red Sarekin (Cámara de Comercio, 12-05-2023).
 - Asistimos al Networking entre agentes de la Red Sarekin (Palacio Euskalduna. Bilbao, 07-06-2023).
 - Asistimos al Plan Formativo experimental sobre extranjería y trabajo (DEMA. Barakaldo, 21-06-2023).
 - Participamos en las IV Jornadas del Emprendimiento en Bizkaia Sarekin Days 2023, presentando en uno de sus actos a nuestra entidad y

keztu genuen eta ULUWATU KOOP. ELK. TXIKIA ezagutzera emateko aukera izan genuen, sustatzaileetako baten eskutik. Gure erakundeak sustatutako kooperatiba da. (Iberdrola Dorrea, Bilbo, azaroak 26 eta 27).

- 2023ko Jardueren Memoria eta Enpresa Ekimen Kooperatiboan Behatokiaren XVIII. Txostena aurkezteko prentsaurrekoa eskaini genuen (Ercilla hotela, Bilbo, 2023-05-19).
 - Work-Lanen Social-Lab ekitaldiaren III. edizioan izan ginen (Deustuko Salestarren Ikastetxea, Bilbo, 2023-05-25).
 - COCETAren Ohiko Batzar Nagusian izan ginen, eta laster erretiroa hartuko duen Paloma Arroyo zuzendariaren agurreko omenaldian parte hartu genuen (Ortega Marañón fundazioa, Madril, 2023-06-01).
 - EL CORREO egunkariko merkataritza-arduradunarekin eta ordezkariarekin bildu ginen; «b venture» ekitaldia aurkeztu ziguten (eus.b-venture.com/) eta, gainera, eztabaida-saioak eta ekitaldi txikiak egiteko aretoa erakutsi ziguten, Bilboko Kale Nagusiko Sota eraikinaren beheko solairuan, plantilla osoa hartzen duen horretan (Sota eraikina, Bilbo, 2023-06-07).
 - Sozietate kooperatiboan fiskalitateri buruz Yolanda Dominguez Gipuzkoako Foru Ogasuneko zerga-kudeaketako zuzendariorde nagusiak eskaintako online jardunaldian izan ginen. Antolatzailea: Euskadiko Ekonomialarien Elkargoa (2023-06-21).
